

Usurbilgo Udala

2018KO URTARRILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi du: Xuban Zubiria Elexpe

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko urtarrilaren 30ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.


Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

***2017/11/28KO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2017ko azaroaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

***2017/12/19KO BILKURAKO AKTA.**



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, 2017ko abenduaren 19ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2017KO ABENDUAREN 12TIK 2018KO URTARRILAREN 19RA (2017/1252-2018-0067).

Alkatetzak 2017ko abenduaren 12tik urtarrilaren 19ra bitartean (2017/1252–2018/0067) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2017/1316 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Batzarkideei, 2017/1316 dekretuaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

4.- ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN BAITAN VAMB ANDEREA EGINDAKO ARAU-HAUSTEA.

Josune Urkolak adierazi du puntu hau batzordetik ez dela pasa eta beraientzat erabat berria dela, orain artean dekretuz joan baitira. Hori dela eta, puntua mahai gainean uztea proposatu dute.

Idazkariak azaldu du udal ordenantzan jasota dagoen moduan, arau-haustearen larritasunaren arabera organo eskuduna bata edo bestea dela. Hau da, arau-hauste arinetan alkatea da organo eskuduna, larrietan plenoa eta oso larrietan Diputazioa. Kasu zehatz honetan larria denez, azken ebazpena ematea plenoari dagokiola zehaztu du.

Josune Urkolak galdetu du zergatik ez den batzorde bat egin azalpenak emateko.

Idazkariak esan du urtarrilean ez dela zerbitzuetako batzorderik egin eta, bestalde, zigor prozedurek epe jakin bat dutela hasi eta bukatzeko. Kasu honetan, pleno honetara ez bazetorren berriz ere prozedura martxan jarri beharko zela esan du, prozedura kadukatzen dela dio baina arau-haustea ez dela preskribatzen urtebeteko epea duelako gertatu zenetik. Beraz, puntu hau mahai gainean uzten bada prozedura berriz ere martxan jarri beharko dela azpimarratu du.

Gaineratu du prozedura tasatua dela eta batzordetik pasa gabe ere, espedienteari buruzko azalpenak eman ditzakeela idazkariak berak. Jarraian, prozedura honek dituen tramiteak zehaztu ditu.



Usurbilgo Udala

Jone Urdanpilletak zehaztu du urtarrilean ez dela zerbitzuetako batzorderik egin saileko teknikariaren gaixotasun bajagatik.

Espediente honetan arau-hauste larri bat bere maila baxuenean aplikatzen dela zehaztu dute, hau da, 300 eurokoa ez dagoelako inolako agrabanterik.

Alkateak gertakari zehatz honi buruzko azalpenak eman ditu. Bi txakurrek artalde bati egindako erasoak dela esan du, bertan zegoen pertsona batek erasoak ikusi eta txakurretako bat harrapatu ere egin omen zuen. Udaltzaingoak atestaturik egin eta harrapatutako txakurra txakurtegira eraman zela esan du. Gertakari horren ondorenean zigor espedientea etorri dela zehaztu du.

Josune Urkolak galdetu du ea gertakaria behin gertatu den edo behin eta berriz, eta erantzun zaio behin gertatu dela.

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek gehiengoz erabaki dute gai-zerrendan sartzea.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.


Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Jarraian, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“IKUSIRIK

2017ko abuztuaren 11ko zinegotzi delegatuaren 2017/0844 dekretu bidez VAMB anderearen aurkako HZ.08/2017-0380 zigor-jardunbideari hasiera eman zitzaion ondoko arrazoiengatik:

- a) Usurbilgo udaleko udaltzainburuaren 2017ko abuztuaren 9ko salaketan adierazten denaren arabera, animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzako 29.2.g artikuluari egiten zaio erreferentzia, kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izatea zehazki. Salaketan agertzen diren datuen arabera arau-hauste eguna 2017ko uztailaren 12a da eta arau-hauslea berriz VAMB anderea, txakurraren jabea, udaltzainburuak salaketarekin batera gehitu dituen dokumentazioan ikusi daitezkeen datuen arabera (ikusi espedienteko dokumentazioa).



Usurbilgo Udala

- b) Udaltzainburuak egindako txostenean VAMB anderearen aurka dagokion zigor espedientea irekitzea proposatu du animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza, urratzeagatik, aipatu arau-urratzearen sailkapena **larria** izanik.

2017ko irailaren 13an jakinarazi zitzaion VAMB andereari zigor espedientearen hasiera, 15 eguneko epea emanaz jardunbidearen izapidegilea urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera errefusatzeko, edota ongi irizitako alegazioak, dokumentuak edota informazioak aurkez zitzan. Era berean, frogaldia irekitzeko eskabidea egiteko eta egoki ikusitako frogabideak proposatzeko.

Emandako epea amaituta, VAMB andereak ez zuen alegaziorik aurkeztu, ez eta frogaldia irekitzeko eskatu.

2017ko azaroaren 10ean ebazpen proposamena jakinarazi zitzaion VAMB andereari, jakinarazpena jasotzen zuen biharamunetik hasita 15 egunetako epea emanaz espedientea aztertu eta hala balegokio, alegazioak aurkez zitzan.

2017ko abenduaren 12an (epeaz kanpo baina ebazpena eman aurretik), VAMB andereak alegazio idatzia aurkeztu du.

Alegazio idatzian honakoak jaso ditu hitzez hitz:

“(...) se acusa a esta administrada por no tener una debida diligencia en la custodia y guarda de animales y que puedan causar daños. Se imputa una relación de causalidad entre los daños sufridos por un tercero y la posible actuación de un animal bajo mi custodia.

En ningún momento se demuestra esa relación de causalidad. Se da credibilidad a una manifestación particular, incoherente, indemostrada y falta de veracidad. Además y en esa línea de imputación se pretende sancionar al aquí recurrente por una presunta falta de diligencia indemostrada.

En ningún momento ha habido dejadez en la vigilancia y custodia de los perros y mucho menos una intención hacia ese abandono. Por ello y al estar la fuerza de la sanción en una declaración particular e intencionada y carente de fundamentación factual así como de la presunción de veracidad que acompañaría a determinados funcionarios públicos, no ha de procederse a la continuación del presente proceso sancionador.

Por todo lo cual a ese Ayuntamiento, solicito se admita el presente escrito en el sentido de no dar por válida las manifestaciones contenidas en ese expediente y sirviéndose el inmediato archivo del presente expediente sancionador.”

KONTUAN HARTURIK

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzako (GAO 2011-05-09) 6. artikulua xedatutakoaren arabera, *Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, animaliaaren edukitzaila izango da animaliak sortu ditzan kalte, galera eta arazoan erantzulea.*



Usurbilgo Udala

Aurreko xedapena aintzat harturik eta espedientean aurkitzen den dokumentazioa eta frogak ikusi ondoren, burututako egintza arau-urratze **larria** dela, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikulua arabera. (*kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izatea.*)

Instruktore honen ustez, **frogatuta** geratu dela aipatutako **arau-urratzea eta erantzulea**. Usurbilgo udaleko udaltzainburuaren 2017ko abuztuaren 9ko salaketa-txostenean deskribatu eta zehaztu zen gertaera, eta espedientean jaso da animaliak eragindako kalteak deskribatzen dituen albaiteroaren txostena.

VAMB andereak aurkeztutako alegazioetan norbanako baten deklaraziori eta funtzionarioen egiazkotasun presuntzioari egiten die erreferentzia. Hirugarrenek esandakoak udaltzainburuaren txostenak jasotzen ditu, eta horri lotutako dokumentazioa esan bezala espedientean jaso da.

Udaltzain kideen funtzio eta eginbeharrak 2017ko urriaren 6an emandako instruktorearen txostenean zehaztu ziren, eta agintaritza izaeraren aitortza azpimarratu. Horren arabera, bere salaketa froga nahikoa dela ondorioztatzen da salatutako pertsonaren errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko. Agintaritzaren Agente izaera duten funtzionarioek adierazitako gertakariei Legeak froga-balioa esleitzen die (39/2015 Legeko 77.5 artikulua). Udaltzainburuaren txostena administrazio-espedientean sartuta dago, eta honek froga gisa balio du. Agintaritzaren Agentearen salaketari Legeak nahiko indar esleitzen dio salatutako gertakariak ziurtatzeko eta ondorioz isuna jartzeko ekintza zuzenbidezkotzat hartzen da. Ahalmen edo botere honek kontrako froga onartzen du noski; interesatuak aurkeztutako alegazioetan baina ez da aurkatze hori sostengatzen, kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izateari dagokion arau-haustea ukatzera mugatzen delarik.

Gauzak honela, aurkeztu alegazioak ez onartzea proposatzen du instruktoreak.

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b) artikulua arau-urratze larrientzat ezar daitezkeen **zehapenak** zehazten dituela:

30. artikulua. Zehapenak.

1. Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen arabera, animaliak babesteari buruzko arau-haustek honako zenbateko hauek dagozkien isunekin zehatuko dira:

(...)

b) Arau-hauste larrietarako isuna: 300,52 €-tik 1.502,53 €-ra.

(...)



Usurbilgo Udala

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 32. artikulua 1 atalak berriz **zehapenak ezartzeko mailaketa** zehazten dituela:

1. Isunen zenbatekoa mailakatzeko eta aurreko artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusitako zehapenen iraupena zehazteko, honako inguruabar hauek kontuan izango dira:

- a) Egindako arau-haustearen transzendentzia soziala eta sanitarioa, eta eragindako kaltea.
- b) Legez kanpoko irabazi-asmoa agerikoa izatea eta arauhaustetik irabazitakoaren zenbatekoa.
- c) Arauak hausten segitzea. Zehapen-espeditentea abiarazi aurreko bost urteko epean Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteren bat administrazio bidezko ebazpen irmoz zehapena ezarri bada, arauak hausten segitu dela ulertuko da.
- d) Arau-haustearen gaitzespen-mailan eragin dezakeen beste edozein, bai aringarria bai astungarria. Horretarako, bereziki esanguratsua izango da animalien aurka erakutsitako bortxakeria haurren edota adimen-urrituen aurrean egin izana.

Espeditentean dagoen dokumentazio eta txosten guztien bidez frogatuta geratu den arau-urratzea eta honen erantzulea VAMB anderea dela, eta egindako arau-urratzeari emandako sailkapenaren (arau-urratze larria) arabera, instruktoreak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 38. artikuluari jarraituz, egindako proposamena kontutan hartuta, Udaltzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

E R A B A K I A

LEHENBIZI: VAMB andereak aurkeztutako alegazioa ez onartzea.

LEHENDABIZI: VAMB andereak Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikuluan xedatutako arau-urratze **larria** burutu du, hau da, *Kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izatea*, espeditentean aurkitzen den dokumentazio eta frogen baitan.

BIGARRENA: VAMB anderea da arau-haustearen erantzulea, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 6. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

HIRUGARRENA: VAMB andereari, burututako arau-hauste larria dela eta, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b) atalean aurreikusitako zehapena jartzea, hain zuzen ere, **300,52 euroko isuna** ezartzea (arau hauste larria bere maila baxuenean) ordenantza bereko 32. artikuluko 1. atalean xedatutako irizpideak eta espeditenteko dokumentazioa kontuan hartuta, betiere Euskal



Usurbilgo Udala

Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 7. eta 14. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.- GSR, GESTIÓN DE SERVICIOS RESIDENCIALES, S.COOP-I ADINEKO PERTSONENTZAKO USURBILGO EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Jone Urdanpilletak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu irizpenean jasota dauden moduan.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:


“Esp. Zkia.: ID.05/2017-0375

1.- AURREKARIAK

Udalbatzarrak, 2017ko urriaren 4ko bilkuran adineko pertsonentzako Usurbilgo eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emakidaz kontratatzeko espedienteari onespena eman zitzaion, oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen orriekin eta Preskripzio Teknikoen orriekin batera.

Lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2017ko urriaren 17an eta eskaintza bakarra aurkeztu zen, GSR Gestión de Servicios Residenciales-ena.

Eskaintza baloratu ondoren, kontratazio mahaiaren proposamena ikusita Udalbatzarrak, 2017ko abenduaren 19ko bilkuran, eskaintza bakar eta hortaz onena egin duena GSR Gestión de Servicios Residenciales dela zehaztu eta errekerimendua egin zitzaion, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean oinarri administratiboetan zehazten diren agiriak aurkeztu ditzan. Emandako epe barruan enpresak eskaturiko agiriak aurkeztu ditu.



Usurbilgo Udala

2.- APLIKAGARRIA DEN LEGEDIA

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua, azaroaren 14ko 3/2011 Dekretu legegilearen bidez onartua
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2018ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Jone Urdanpilleta, Josune Estella, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko bozkekin, aho batez, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: GSR Gestión de Servicios Residenciales S.Coop.-ri esleitzea Adineko pertsonentzako Usurbilgo eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emateko kontratua.

BIGARRENA: GSR Gestión de Servicios Residenciales S.Coop.-ri kontratua sinatzera dei egitea.

HIRUGARRENA: Kontratua sinatu ondoren formalizazio hori udaleko Kontratatzailearen Profilean, Gipuzkoako Boletinean eta legez dagokion gainerako bitartekoetan argitaratzea.

LAUGARRENA: GSR Gestión de Servicios Residenciales S.Coop-ek jarritako behin behineko bermea itzultzea.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri GSR Gestión de Servicios Residenciales S.Coop, Ongizate saila eta Kontu-hartzaitza sailari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli. eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- GALDERA-ESKAERAK.



Usurbilgo Udala

Alkateak jakinarazi die batzarkideei gaurko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu direla 2018ko aurrekontuen behin betiko onespena.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:20etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.